



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## PRENSA OHARRA

Barikua, zezeilaren 22a (09:30ean) Herri Lan eta Garraioetako Batzordea

### **Metro Bilbaoren zerbitzua Batzar Nagusietan gelditu da**

Bilbo, 2013ko zezeilaren 21a

Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Batzordea bihar batuko da, Bilbon, saio ia monografikoa egiteko Metro Bilbaori buruz. Bai Bilduk bai Alderdi Popularrak Arauz Besteko Proposamenak aurkeztu ditue, urtarrilean Bilboko metroaren Zuzendaritza ohiak baztertutako aurreko maiztasunak eta zerbitzu bereziak berreskuratzeko eskatzeko. Saio berean, Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraio Saileko foru diputaduak Metro Bilbaoko zerbitzuak egunero “50 konboi gitxiago” eukiterainoko “murrizketari” buruzko itaunei erantzun beharko deutse, PPK aurkeztutako agerraldi-idazkian agertzen dan lez.

Ekimen parlamentarioetako baten, Bilduk hurrengoak eskatu deusaz Metro Bilbaori: 2012ko urtarrilaren 9an egoan zerbitzua berreskuratu daiala; “diligentzia eta aurreikuspen handiagoagaz” joka daiela esfortzu bereziak eskatzen dabezan gertaeren aurrean; eta “erabiltzaileari eskaintzen jakon zerbitzua urritzen ez daben bestelako aurrezpen neurriak” aztertu daiazala, goi-zuzendaritzaren soldatak edota kaleratzeengaitiko kalte-ordain neurribakoak murriztea, berbarako.

Beste alde batetik, Alderdi Popularrak Foru Aldundiari eskatu deutso Metro Bilbaok “baztertutako zerbitzuak berehala jarri daiazala martxan barriro”, izan be, murrizketa horrek “pilaketak sortzen dauz nasetan eta arriskuan ipinten dau erabiltzaileen segurtasuna”.

## 2013ko TARIFAK

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) Metro Bilbaoren 2013rako tarifak ezartzeko berehala hartutako erabakiaren aurrean, Bilduk Arauz Besteko Proposamena aurkeztu dau, Bizkaiko Batzar Nagusiek erakunde horretako arduradun barriei eskatzeko tarifak “izotuta” mantendu daiezala aurtan.

## GALDEREA DIPUTADU ANDREARI

Edozelan be, batzordea Bilduk Herri Lan eta Garraio Saileko foru diputaduari egingo deusan galderearen erantzunagaz hasiko da. Hain zuzen be, Bilduk Herri Lan eta Garraio Saileko 2 milioiko kreditu transferentzia onartzeko 2011ko zemendiaren 29an hartutako akordio-proposamenari buruz egingo deutso galderea; kreditu hori “751.00/510.301/06.03 jatorrizko partidatik, 2007/0160 CTB aurrekontu proiektutik, 741.02/510.301/06.03 partidara, 2007/0021 aurrekontu proiektura” transferiduzan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## NOTA DE PRENSA

Viernes, 22 de febrero (9.30 horas). Comisión de Obras Públicas y Transporte

### **El servicio de Metro Bilbao se detiene en las Juntas Generales**

Bilbao, a 21 de febrero de 2013

La Comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales se reúne mañana en Bilbao para celebrar una sesión casi monográfica sobre Metro Bilbao. Los grupos Bildu y Popular Vizcaíno (PP) han presentado sendas Proposiciones No de Norma para emplazar a los actuales gestores del suburbano bilbaíno a que recuperen las frecuencias y los servicios especiales que fueron retirados por la antigua Dirección del suburbano bilbaíno en el mes de enero. En la misma sesión, la diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, tendrá que responder al PP sobre una “restricción” de circulaciones diarias en este transporte que alcanza “hasta un número de 50 convoyes”.

En una de las iniciativas parlamentarias, Bildu solicita a Metro Bilbao que recupere el servicio tal y como se encontraba a 9 de enero de 2012, que actúe con “mayor diligencia y previsión” ante acontecimientos que requieran de refuerzos especiales, y que estudien “otras medidas de ahorro que no supongan la merma de servicio al usuario, tales como la reducción de los salarios de alta dirección o indemnizaciones por despido desorbitadas”.

Por su parte, el Grupo Popular insta a la Diputación foral a que solicite a Metro Bilbao la “inmediata puesta en marcha de los servicios retirados”, ya que esta supresión “provoca situación de aglomeración en los andenes y pone en riesgo la seguridad de los usuarios”.

#### TARIFAS 2013

Ante la decisión de establecer por parte de la nueva dirección del Consorcio Transportes de Bizkaia (CTB) las nuevas tarifas de Metro Bilbao para el año 2013, Bildu ha presentado una Proposición No de Norma para que se inste desde las Juntas Generales de Bizkaia a que los nuevos gestores mantengan los precios “congelados” durante este año.

#### PREGUNTA A LA DIPUTADA

La comisión arrancará con la respuesta de la Diputada foral de Obras Públicas y Transportes a una pregunta de Bildu sobre la propuesta de acuerdo adoptada el 20 de Noviembre de 2011 para la aprobación de una transferencia de crédito de 2 millones de euros del Departamento de Obras Públicas y Transportes “de la partida de origen 751.00/510.301/06.03, Proyecto presupuestario 2007/0160 CTB, a la partida 741.02/510.301/06.03, Proyecto Presupuestario 2007/0021”.